

# Irakasleen komunikazio- gaitasuna: hausnarketarako gaia

**Urtza Garay eta Aintzane Etxebarria**  
**EHUko irakasleak**

Gaur egun hiztun orok duen komunikazio-gaitasuna definitzeko orduan, kode linguistikoa ez ezik, bestelako ezagutza ere kontuan izan behar dugu. Horrela, bada, lan honetan aipatzen ditugun zenbait autorek komunikazio-gaitasuna osatzen duen ezagutzaren berri eman dute. Halaber, lan honetan irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna zehaztu dugu eta horretarako bi bide hartu ditugu; batetik, irakasleak bere eguneroko jarduera akademikoan dituen hiru lan-eremuak zehaztu ditugu; bestetik, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak aipatzen duen C1 hizkuntza-maila oinarri hartuta, irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna aipatutako hiru eremuotan azpimarratu dugu.

**GAKO-HITZAK:** Komunikazio-gaitasuna · Irakaslea · Europako Erreferentzi Marko Bateratua · C1 hizkuntza-maila.

Today, to define the Communicative Competence of the speaker, we must take into account other skills besides the knowledge of the code language. In the present work we introduce these skills, opening new roads within The Common European Framework of Reference for Languages (CEFR). Our aim is to define The Communicative Competence of the teacher. In doing so, we have taken into account two approaches. On the one hand, we have delivered the three areas of work that the teacher faces in his daily academic activity, and on the other, we have taken as a reference of the teacher's language level the C1 level of the Common European Framework. Consequently, when we refer to the term communicative competence, we do it along the line that this competence subsumes in itself other competences.

**KEY WORDS:** Communicative competence · Teacher · The Common European Framework of Reference for Languages · C1 language level.

*Jasotze-data:* 2010-01-26. *Onartze-data:* 2010-05-31.

# 1. Sarrera

Lan honen egileoi egokia iruditu zaigu bi bidetatik jotzea sarrera honetan; batetik komunikazio-gaitasunaren garrantzia azpimarratzeari ezinbesteko deritzogu, egungo ikuspegi linguistikoetan horixe bilatzen baita; bestetik, irakasleak duen jardueran oinarrituta, lan hau egiteak izan duen helburua zehaztu dugu.

## 1.1. Komunikazio-gaitasunaren garrantzia

Gaur egun hizkuntza komunikazio-tresnatzat hartzen da eta hizkuntzaren eta testuinguru soziokulturalaren arteko loturak gero eta garrantzi handiagoa du. Zenbait ikertzailek ideia hori azpimarratu dute euren teorizazioetan. Campbellek eta Walesek, esaterako, ez dute baztertzeko gizakiok jaiotzetik dugula hitz egiteko gaitasuna, Chomskyk zioen bezala, baina ingurua ere garrantzitsua dela diote:

No hay duda de que los seres humanos poseemos cierta predisposición innata a estructurar información. Como señalara Chomsky (1965), incluso el empirismo más acérrimo supone algún tipo de determinación innata; sin embargo, también es cierto que toda adquisición de conducta depende en alguna medida de la interacción de estas predisposiciones en el medio ambiente. (...) Es necesario tener en cuenta tanto la contribución del individuo, como la del contexto o medio ambiente en que dicho individuo actúa o aprende (1975: 261).

T. Van Dijkek ere hizketa definitzerakoan kanpoko eragina aipatzen du:

En general, los interlocutores de una conversación no son pasivos (...) sino que también adoptarán el papel del hablante para que pueda tener lugar una interacción lingüística. La interacción resulta de una serie de actos de habla de diferentes interlocutores, ordenados, entre otras cosas, según unas reglas convencionales. (...) Las condiciones que determinan la interacción no son lingüísticas en estos casos (pragmáticos), sino que más bien se fundamentan en normas de comportamiento mucho más generales (1983: 92).

Lomasek eta Osorok azken hamarkadetan hizkuntza ikertu duten diziplinek komunikazioan erabiltzen diren diskurtso-egituretan eta ingurugiroan arreta jarri dutela adierazi dute:

La evolución de las ciencias del lenguaje y de otras disciplinas del lenguaje se orienta cada vez más al análisis de las formas discursivas que encarnan los usos comunicativos, a la consideración de las variables culturales que condicionan y determinan el significado social de esos usos y al conocimiento de los procesos cognitivos implicados en la comprensión y producción de mensajes (1993: 10).

Horrenbestez, hizkuntza komunikaziorako tresnarik eraginkorrenetarikoa den heinean, hiztunen komunikazio-gaitasunak ere garrantzia hartu du, eta ikerketa askoren oinarri izan da.

Cenozek esaterako, kontzeptu horri garrantzia emateak hainbat bide ireki dituela adierazi du bai hizkuntzalaritza aplikatuan bai pragmatikan:

El concepto de competencia comunicativa refleja el cambio de la lingüística teórica a la aplicada, de la microlingüística a la macrolingüística. Además la evolución

del constructo de competencia refleja la evolución del paradigma generativo a otro nuevo paradigma, el del texto, el discurso y la pragmática (1996: 111).

Europako Kontseiluaren oinarritzko proiektua den Europako Erreferentzi Marko Bateratuak ere komunikazio-gaitasunaren aldeko apustua egiten du eta honela adierazten du:

Fomentar la investigación y el desarrollo de programas que supongan la introducción, en todos los niveles educativos, de los métodos y materiales más apropiados que permitan a los distintos tipos de alumnos la adquisición de una competencia comunicativa adecuada a sus necesidades concretas (2002: 3).

## 1.2. Lan honen helburua

Lan honek duen xederik behinena hausnarketarako bidea izatea da; hau da, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak euskaraz komunikatzen diren neurrian, euren eguneroko lanean dituzten jarduera-eremuetan izan beharreko komunikazio-gaitasunari buruzko gogoeta da. Horretarako, komunikazio-gaitasunaren garrantzia azpimarratuta, definizioa emateari ekin diogu eta zenbait ikertzailek egin dituzten sailkapenak ere azpimarratu ditugu; izan ere, komunikazio-gaitasuna kontzeptu konplexua da, gaitasun orokorraren barnean bestelako gaitasunak ere kontuan hartzekoak direlako.

Behin hori guztia azpimarratuta, orokortasunetik zehaztasunera jo dugu; komunikazio-gaitasuna orokorrean hartua, irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna zehaztu dugu, horretarako, kontuan izan ditugu irakasleak ikasleekin, gainerako profesionalekin eta ikasleen senideekin dituen ohiko hiru jarduera-eremuak, hauek baitira irakasleen egunerokotasunean komunikazio-esparrurik ohikoenak. Azpimarratu beharra dugu komunikazio-gaitasuna lan honetan adierazten den zentzurik zabalenean kontuan izan behar dugula, ingurunea eta pragmatika ere kontuan hartuta. Irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasunaren berri emateko orduan, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak definitzen duen euskarako C1 maila aintzat hartu dugu. Hortaz, irakaslearen hiru lan-esparru, beharrezkoa duten C1 maila eta komunikazio-gaitasuna kontzeptua uztartu ditugu.

## 2. Komunikazio-gaitasunaren definizioa

Komunikazio-gaitasuna zeri deitzen diogun galdetzean, Cenozek 1996an kontzeptu hori definitzeko ikuspegi bateratu bat ez dagoela eta komunikazio-gaitasunaren osagaien zerrenda bakarra ere ez dela existitzen esaten digu.

Savignonen (1983) arabera, komunikazio-gaitasuna dinamikoa da; idatzizkoan nahiz ahozkoan agertzen da; testuinguru zehatzean ematen da; ezagutza mailakoa denez, hizketatik bereizten du; eta azkenik, erlatiboa da.

Canale eta Swainek 1980an komunikazio-gaitasuna bi kontzeptuk osatzen dutela adierazi zuten: batetik ezagutzak, eta bestetik, trebetasunek. Ezagutza hizkuntzaren edota erabileraren eremuko da; trebetasunen bitartez, ezagutza komunikazioan ongi erabiltzen den neurtzen da:

Communicative competence has understood as the underlying systems of knowledge and skill required for communication (e.g. knowledge of vocabulary and skill in using the sociolinguistic conventions for a given language) (1980: 5).

Dena dela, autore asko Hymes izan dela komunikazio-gaitasuna gehien eta ondoen aztertu duena esatean bat etorri dira. Gómez Vilasók (1994) Hymes Chomskyren gaitasunetik harago joan zela eta hizkuntzaren ezagutza eta erabilerako arauak uztartu zituela esan zuen.

Horrela, bada, Hymesek 1972an gaitasuna gizakiak izan ditzakeen gaitasunen kontzepturik orokorra dela adierazten du eta gramatikaren ezagutzaz gain, inguru soziokulturalak ere garrantzia duela dio. Era berean, hizkuntza-eredua ekintza komunikatiboek eta ingurukoak zehaztu behar dutela gaineratzen du.

### **3. Komunikazio-gaitasunaren inguruko sailkapenak**

Komunikazio-gaitasunak hizkuntzaren ezagutzatik at dauden beste gaitasun batzuk ere besarkatzen ditu, eta ideia horren inguruan zenbait sailkapen egin dira.

#### **3.1. Canale eta Swainen sailkapena**

Canalek 1983an argitaratutako artikuluan Swainekin ateratako ondorioen berri eman zuen eta komunikazio-gaitasuna beste lau gaitasunek osatzen dutela esan zuen: gaitasun gramatikalak, gaitasun soziolinguistikoak, gaitasun diskurtsiboak, eta gaitasun estrategikoak.

Gaitasun gramatikalari gaitasun linguistikoa ere deitzen diote eta Chomskyren gaitasunaren kontzeptuari dagokio. Gaitasun gramatikalari esker, lexikoa, morfologia, sintaxia eta fonologia erabiltzeko gai izango da hiztuna.

Gaitasun soziolinguistikoa duten hiztunek hizkuntza erabiltzen den testuinguruko arauak ezagutzen dituzte: parte-hartzaileen rolak, informazioa zertaz ari den eta elkarreraginaren funtzioa. Beraz, hiztunak zer esan eta nola esan jakin behar du.

Gaitasun diskurtsiboak hauxe esan nahi du: esaldien arteko lotura egokia egin behar da testuaren esanahi orokorra ulertzeko. Gaitasun honen zati da testuaren koherentzia bilatzea.

Hiztun gutxik erabiltzen dute hizkuntza guztiz zuzen, hutsune horiek konpentsatzeko gaitasun estrategikoa erabiltzen da.

#### **3.2. Bachmanen sailkapena**

1990ean Bachmanek antolatzeko gaitasuna eta gaitasun pragmatikoa bereizi zituen; antolatzeko gaitasunaren barruan gramatika-gaitasuna eta testu-gaitasuna sartu zituen. Antolatzeko gaitasunak hizkuntzaren egiturarekin du zerikusia eta gramatika aldetik zuzenak diren esaldiak ezagutzeko eta ekoizteko balio du, baita esaldien arteko lotura egokiak egiteko ere.

Gaitasun pragmatikoak gaitasun ilokutiboa eta soziolinguistikoa hartzen ditu bere barnean. Gaitasun pragmatikoak hizkuntzaren erabilerari egiten dio erreferentzia, horrenbestez garrantzitsua da zer esaten den funtzio jakin bat lortzeko eta zer testuingurutan.

### **3.3. Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrellen sailkapena**

Eredu honek gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, akzionala, diskurtsiboa eta estrategikoa bere barnean hartzen ditu. Gaitasun linguistikoa, gramatikaz gain, lexikoa eta fonologikoa ere sartzen dira. Gaitasun akzionalaren bitartez gizakia gai da esaten duena eta jasotzen duena ulertzeko. Gaitasun diskurtsiboak aukera ematen digu hitzak nahiz bestelako elementu batzuk aukeratzeko, egituratzeko eta antolatzeko ahozko nahiz idatzizko testua sortzeko. Komunikazio-gaitasunak hiruki batean aurkezten dituzte eta erdian gaitasun diskurtsiboa dago; hirukiaren hiru muturretan, berriz, gaitasun soziolinguistikoa, akzionala eta linguistikoa (Cenoz, 1996: 109-110).

Autore hauen esanetan, lexikoan eta gramatikan dugun gaitasuna batetik; eta bestetik, gaitasun akzionala eta soziolinguistikoa batu egiten dira eta diskurtsoari forma ematen diote. Gaitasun estrategikoa dena hartzen du bere barnean; izan ere, komunikazioa mantentzeko beharrezkoa da beste gaitasun batzuek huts egiten dutenean. (Cenoz, 1996: 111).

## **4. Europako Erreferentzi Marko Bateratua komunikazio-gaitasunaren aurrean**

Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edozein hiztunek izan beharko lukeen helbururik funtsezkoena komunikatzea da, horretarako komunikazio-gaitasunaz gain, hiztunak bestelako gaitasun orokor batzuk izan beharko lituzke, hizkuntzatik at daudenak.

Gaitasun orokorren artean honakoak sartzen ditu: ezagutza (munduarena, gizartearena, kultura ezberdinena), trebetasunak (praktikoak eta kulturen artekoak), izaten jakitea eta ikasten jakitea (bai hausnarketa eginez, bai trebetasun ezberdinak landuz).

Komunikazio-gaitasunen barnean hizkuntz gaitasuna, soziolinguistikoa eta pragmatikoa sartzen ditu. Hizkuntz gaitasuna lexikoaren, gramatikaren, semantikaren, fonologiaren, idazkeraren eta ahozkeraren ezagutzari dagokio. Gaitasun soziolinguistikoa ingurukoekiko harremanak izatean hiztunak eduki beharreko ezagutzaren gainekoa da; alegia, hiztunak hizkuntz funtzio jakinak lortzeko egiturak ezagutu behar ditu, baita arreta-arauak, herri-hizkera, dialektoa eta azentua ere. Erregistroak egoera jakinetan duen garrantzia ere azpimarratzekoa da.

Gaitasun pragmatikoa diskurtsoaren egiturari eta hizkuntz funtzioei dagokie; izan ere, beharrezkoa du hiztunak diskurtso egokia moldatzea testuaren barneko egiturari arreta jarritz. Hein berean, sortutako diskurtsoak lortu beharreko funtzioa zein den jakitea ere garrantzizkoa da.

Horrenbestez, hausnarketarako puntuak hurrengoak izango lirateke:

- Irakasleek diskurtsoak bere eguneroko zereginetara moldatzeko landu behar dituzten trebetasunak.
- Irakasleen komunikazio-gaitasunak izan beharreko ezaugarriak.

## **5. Irakaslearen komunikazioa: trebetasunetatik gaitasunera**

Hezkuntza Legedian eta hezkuntza-arloan oro har egin diren azken berrikuntzak eredu demokratikoago baterantz zuzenduta daude, hori dela-eta, hezkuntza-eredu berriek eztabaidari ez ezik, komunikazioari ere garrantzia ematen diote, komunikazioan oinarritzea baita xede nagusia. Beraz, irakastea komunikatzea da, nahiz eta komunikazioak beti ez irakatsi (Méndez eta Gómez, 2009).

Hori horrela izanik, hezkuntzan, bere zentzurik eta orokorrean, eta Derrigorrezko Hezkuntzan batez ere, komunikazio kontzeptuak beste maila bat hartzen du, ez baita oinarritzen informazioa emate soilean, baizik eta hezkuntzan oinarritutako komunikazioak garrantzia hartzen du eta beste kontzeptu birekin hornitzen da: didaktikoa eta orientatzailea. Gainera, hiru funtzio nagusi hartzen ditu: informatzea, alde afektiboa bultzatzea, eta erregulatzea. Orain arteko igorle eta hartzaile dikotomia alde batera uzten da, bai irakasleak, bai ikasleak, bai familiak edota tutoreak igorleak eta hartzaileak dira. Hizkuntzak hartzen duen truke-funtzioa dela-eta, negoziazioa beharrezkotzat jotzen da hezkuntzaren esparru formalean.

Etengabe negoziatzen dira adierak eta negoziazio horretan mezuaren transmisioa ahalbidetzen duten jarrerak agertzen dira, jarrera horiek mezuari ezaugarri berezi batzuk atxikitzen dizkiote eta jasotzaileengan eragina dute. Horrenbestez, komunikazio-gaitasun egokia izatea irakasleen helbururik behinenetakoa da.

Irakaslearen komunikazio-gaitasunaz ari garenean, irakasleak komunikazio-egoeretan izan beharreko ezagutzatik, azturetatik eta trebetasunetatik harago doa (Fernández, 2000). Gaur egungo irakaslearen lana ez da kontzeptuen eta ezagutzaren transmisio soilak, irakasleak gidatzaile dinamikoa izan behar du ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza eremuan. Hortaz, irakasleak era egokian komunikatzeko zer esan, eta batez ere, nola esan eta zer baliabide erabili horretarako izan behar du kontuan.

Irakasleak izan beharko lukeen komunikazio-gaitasunaren barnean ezagutza fonetikoa, semantikoa eta sintaktikoa izatea garrantzizkoa da, baina bestelako eremuetan (testuan, diskurtsoan eta arlo soziolinguistikoa) ere irakasleak trebetasuna eta ezagutza izan beharko luke (Cenoz, 1996: 95).

Irakasleak berak izan beharreko komunikazio-gaitasuna, duen lana kontuan izanik, honela definitua izan da:

Estado de preparación general del maestro o profesor que garantiza el desarrollo exitoso de las tareas y funciones de la profesión en correspondencia con las exigencias de los participantes y de los contextos de actuación (Parra eta Más, 2008).

Puntu honetara iritsita, hausnartu beharreko galdera hurrengoa da: zer jarduera-eremu ditu irakasle batek bere lan-ibilbidean?

Tradizioari begiratu gero, jarduera-eremu gehienak, guztiak ez esatearren, ikasgelara mugatzen ziren; alegia, irakasleak ikasleari ezagutza ematen zion ikasgelan, eta irakasle-lanaren beste betebeharrak batzuk ahaztuta geratzen ziren, esaterako, ez ziren kontuan hartzen familiekiko elkarrizketa ezta beste profesionalekin izan beharreko harremanak ere.

*Irakasleen Euskalduntzea* (Eusko Jaurlaritzak, 1997) lanean zehazten denez, hiru jarduera-eremu bereiz ditzakegu irakaslearen komunikazio-gaitasunean, horrela, irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna hiru eremutan kontuan hartu beharko litzateke:



### **1. irudia. Irakasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna hiru jarduera-eremuetan.**

Irakaslearen komunikazio-gaitasuna zabala eta konkretua izan beharko litzateke, bere komunikazio-gaitasuna era egokian komunikazio-ekintzara nahiz testuingurura moldatzeko. Nola ordea? Goazen, bada, atal bakoitzaren definizioa nahiz ezaugarriak ematera.

Hausnarketarekin hasteko irakasle orok, Haur Hezkuntzako, Lehen edota Bigarren Hezkuntzako irakasleek, Europako Erreferentzi Marko Bateratuan azaltzen den euskarako C1<sup>1</sup> hizkuntza-maila izan behar dutela pentsatzetik abiatzen gara.

1. C1 mailari nahiz gainerakoei dagokien informazio guztia aipatutako Europako Erreferentzi Marko Bateratuan dago ikusgai.

C1 maila definitzen duten trebetasunak irakasleak bere lanean izango dituen testuinguruetara ekarri ditugu ondorengo taulan:

EREMUAK		Irakaslea-ikaslea	Irakaslea-irakaslea/zentroa	Irakaslea-familiak
AHOZKOA	Mintzamina	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ikasgaien ahozko azalpena emateko.</li> <li>Gai izango da ikasleei ulertzen ez dituzten puntuen inguruko azalpenak emateko.</li> <li>Gai izango da ikasleei ikaskuntzan bizi dituzten hutsuneen eta aurrerapenen inguruko azalpenak emateko.</li> <li>Gai izango da ikasleen orientaziorako (akademikoa zein lanekoa) azalpenak emateko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da zentroak edota Administrazioak eskatutako proiektuak aurrera ateratzeko.</li> <li>Gai izango da gainerako irakasleekin izan beharreko elkarrizketetan parte hartzeko.</li> <li>Gai izango da zentroko bileretan parte hartzeko eta jario-maila egokia izango du.</li> <li>Gai izango da irakaskuntzaren inguruko gai abstraktuez hitz egiteko, baita bere iritziak emateko ere.</li> <li>Gai izango da irakasleekin, testuingurua kontuan izanik, hizkuntza maila ezberdinetako elkarrizketak mantentzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ikaslearen prozesuaren berri familiari emateko, aholkuak emateko, argibideak emateko, eriritziak eta eskaerak azaltzeko...</li> </ul>
	Entzumena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ama-hizkuntzan diharduten ikasleen elkarrizketa ulertzeko, baita berari zuzenean egiten diotenean ere.</li> <li>Gai izango da gazteen hizkera ulertzeko</li> <li>Gai izango da ikasleek ahoz sortutako testua oso era egokian eta asertiboan zuzentzeko; zuzenketarako egokitasuna, koherentzia, kohesioa... kontuan izanik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da lagunartean erabiltzen diren esamoldeak bereizteko eta ulertzeko.</li> <li>Gai izango da irakasleen bileretako gaiak buruzko azalpenak (ikasleriaren inguruko azalpenak, plan berriak, programazioa...) ulertzeko.</li> <li>Gai izango da zentroan antolatzen diren hitzaldiak nahiko erraz jarraitzeko.</li> <li>Gai izango da zentro mailan antolatzen diren klustroetan ematen diren azalpenak eta eztabaida teknikoak jarraitzeko.</li> <li>Gai izango da bere ikasgairan inguruko informazio tekniko konplexua euskaraz ulertzeko.</li> <li>Gai izango da ama-hizkuntzan diharduten beste irakasle batzuei ulertzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da familiako kideei ulertzeko, nahiz eta euskara baituan ez egin.</li> </ul>
IDATZIZKOA	Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ikasleekin landu behar dituen gaiak egoki idatzeko: puntu nagusiak, azalpenak, adibideak...</li> <li>Gai izango da ikasleek egin beharreko azterketa eta ariketak era ulergarrian idatzeko.</li> <li>Gai izango da ikasleei igorri beharreko testu-tipologia (ikasleen adin-mailaren araberkoa izango dena) idatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ikaslearen prozesuaren ebaluazioa modu egokian idatzeko.</li> <li>Gai izango da irakaskuntzaren prozesuaren ebaluazioa xehe eta argi idatzeko.</li> <li>Gai izango da zentroak eskatutako dokumentazio idatzia (txostenak, eskaera-gutunak...) akatsik gabe eta dagokion maila teknikoan idatzeko.</li> <li>Gai izango da idatziz beste kideekin komunikazio egokia mantentzeko, bakoitzerako erregistro egokia aukeratzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da gurasoei bidalitako oharretan eta gutunetan honakoak kontuan hartzeko: erregistroa, gaiaren koherentzia, testuaren kohesioa eta egokitasuna.</li> </ul>
	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da ikasleek idatziz egindako testuak ulertzeko.</li> <li>Gai izango da ikasleek idatzitako testu oro ikuspuntu ezberdinetatik zuzentzeko: alde gramatikala, ortografikoa, pragmatikoa, testuaren berezko ezaugarriak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da zentroak bidalitako gutunak ulertzeko, inolako arazorik gabe, gainera.</li> <li>Gai izango da artikulua eta argibide teknikoak ondo ulertzeko, nahiz eta bere espezialitatekoak ez izan.</li> <li>Gai izango da lankideren batek utzitako oharrek arazorik gabe ulertzeko.</li> <li>Gai izango da irakaskuntza-prozesua hobetzeko behar dituen ikerketetarako materialak erraz ulertzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai izango da gurasoek bidalitako oharrek edota gutunak arazorik gabe ulertzeko.</li> </ul>

**1. taula. Irakasleak izan behar duen komunikazio-gaitasunaren berri ematen da egunero dituen jarduera-eremuetan.**



Kontuan izan beharrekoa da taula horretan irakaslearen komunikazio-gaitasuna trebetasunetan eta hiru eremutan zehazten dela. Era berean, garrantzizkoa da ohartaraztea, lan honen hasieran esan den bezala, komunikazio-gaitasuna ezagutza linguistikoak ez ezik, beste gaitasun batzuek ere osatzen dutela eta taula honetan horren berri ere ematen da; izan ere, ikasle batek esaten duena ulertu behar baldin badu irakasleak, ezagutza linguistikoaz gain, ezagutza soziala ere izan behar du, aintzat hartu behar baititu ikasleak dituen izaera, jatorria, heldutasun-maila, ama-hizkuntza, etab.

## 6. Ondorioak

Irakasleak hasierako eta etengabeko prestakuntzan komunikazio-gaitasuna garatu behar du, berau baita izango dituen lanak eta enkarguak era egokian betetzeko oinarritzko kompetentzia.

Hortaz, irakasleak argi izan behar du komunikazio-gaitasuna ez dela gaitasun linguistiko hutsa, lan honetan zehar aipatutako zenbait ikerketek ere hala erakutsi digute (Canale eta Swain, 1983; Bachman, 1990; Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell, 1995; Europako Erreferentzi Marko Bateratua, 2002). Hau da, sistema linguistikoa maneiatzeko bestelako trebetasunak (soziolinguistikoa eta pragmatikoa Europako Erreferentzi Marko Bateratuak diotenari jarraitzen badiogu) ere garatu behar ditu, hau era egokian erabili arte. Betiere, sistema linguistikoaren zati diren elementuak sistema komunikatibo oso baten barruan ulertu behar ditu. Beraz, adierazitako gaitasun linguistikoaz gain gainerako trebetasunak eta estrategiak garatu behar ditu egoera jakinetan komunikatzeko beharra sortzen zaion bakoitzean, ahalik eta era egokienean hizkuntza, ikuspegi zabal batean ulertuta, erabili ahal izateko.

Irakaslea hizkuntz formen esanahi sozialaz jabetu behar da orduan, hots, dagokion testuingurura edota eguneroko zereginetara bere hizkera edota idazkera moldatzeko eta egokitzeko gaitasuna lortu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan. Horrenbestez, artikuluan azaldu dugun bezala, irakaslearen komunikazio-gaitasuna bere jardueraren hiru testuingurutan zehaztu daiteke; izan ere, irakasleak izan behar duen komunikazio-gaitasuna neurtzeko orduan, hiru eremuotan arreta jartzea da egokiena. Horretarako, betiere, C1 hizkuntza-maila duela eta Eusko Jaurlaritzak IRALE programaren barnean irakasleen euskalduntzerako aurkezten duen trebetasunen deskriptiotik abiatuta, irakaslearen komunikazio-gaitasunaren berri ematen duten adierazleak taula batean jarri ditugu, bide zail hau leuntzen hasteko pauso bat ematearren.

Ondorioz eta bukatzeko, Littlewoodek 1986an esandakoa aditzera eman nahi dugu, non irakasleak eta ikasleak ordezkaturiko luketen «bera eta bere entzulea»ren papera:

Komunikatzailerik trebeena (...) ez da beti haren egiturak erabiltzen onena. Sarritan, bera eta bere entzulea aurkitzen diren egoera osoa prozesatzen, biek ordurako batera duten ezagutza (egoeraren ondorioz edo aurreko elkarrizketaren ondorioz, adibidez) kontuan hartzen eta bere mezua egokiro komunikaturiko duten elementuak hautatzen trebatuen dagoen pertsona da (1986: 18 orr.).

## Bibliografía

- Bachman, L. F. (1990): *Fundamental Considerations in Language Testing*, Oxford University Press, Oxford.
- Campbell, R. eta Wales, R. (1975): "El estudio de la adquisición del lenguaje", en *Nuevos horizontes de la lingüística*, John Lyons (ed.), Alianza Editorial, Madrid.
- Canale, M. (1983): "From communicative competente to communicative language pedagogy", J. C. Richards eta R. W. Schmidt (ed.), *Language and Communication*, Longman, New York.
- Cenoz, J. (1996): "La competencia comunicativa: su origen y componentes", J. Cenoz eta J. F. Valencia (ed.), *La competencia pragmática: elementos lingüísticos y psicosociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Dijk, T. Van (1983): *La ciencia del texto*, Paidós Comunicación, Bartzelona.
- Fernández González, A. M. (2000): "La competencia comunicativa del docente: exigencia para una práctica pedagógica interactiva con profesionalismo", *Contexto Educativo. Revista digital de Educación y Nuevas Tecnologías*, <<http://contexto-educativo.com.ar/2000/8/nota-05.htm>>, 2010-1-2an.
- Gómez Vilasó, J. (1994): "La comunicación oral (voces cercanas, voces distantes)", Carlos Lomas (ed.), *La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación*, Ediciones Tarea, Gijón.
- HABE (itzulpena) (2005): *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratua*, HABE, Donostia.
- Hymes, D. (1972): "On communicative competence", J.B. Pride eta J. Holmes (ed.), *Sociolinguistics*, Penguin, Harmondsworth, 269-285.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (1997): *Irakasleen euskalduntzea*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Lomas, C. (1994): "La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación", Carlos Lomas (ed.), *La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación*, Ediciones Tarea, Gijón.
- Lomas, C. eta Osoro, A. (1993): *El enfoque comunicativo de la enseñanza de la lengua*, Paidós, Bartzelona.
- Méndez Torres, I. (1990): *El lenguaje oral y escrito en la comunicación*, Limusa Noriega, México DF.
- Méndez , M. eta Gómez Santa Cruz, A.L. (2009): "Comunicación educativa. Competencia comunicativa" (presentación), Universidad de Valle de México, <<http://www.slideshare.net/guest8a8c40/competencia-comunicativa-y>>, 10-1-2010ean.
- Parra Rodríguez, J. F. eta Más Sánchez, P. R. (2008): "La competencia comunicativa profesional pedagógica: una aproximación al estudio de su definición", <[http://www.libreriapedagogica.com/butlletins/butlleti18/la\\_competencia\\_comunicativa\\_prof8.htm](http://www.libreriapedagogica.com/butlletins/butlleti18/la_competencia_comunicativa_prof8.htm)>, 2010-1-3an.
- Savignon, S. J. (1983): *Communicative Competence: Theory and Classroom Practice*, Addison-Wesley Publishing Company, AEB.
- Villasmil Socorro, P. (2004): "Las interacciones comunicativas entre profesores y alumnos en el marco de la enseñanza", *Cuadernos de pedagogía*, **338**, <<http://www.cesdonbosco.com/revista/revistas/revista%20ed%20futuro/EF11/R EVISTA%20N%C2%BA11-EyF%20DIGITAL/Art%C3%ADculos/paulinavillasmil.pdf>>, 2010-1-11n.
- Viña Rouco, M. (2005): "El perfil competencial del profesorado de LE en la educación primaria", *Glosas didácticas. Revista Electrónica Internacional*, **14**, <<http://www.um.es/glosasdidacticas/GD14/08.pdf>>, 2010-1-3an.



